

# Acinetobacter baumannii, ospitaleetako oportunistak

Garazi Andonegi Beristain

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

**A** *Acinetobacter baumannii* bakterio oportunistak da, eta ospitaleetako infekzio larriak sortzen ditu, besteak beste, pneumonia. Osasuna ahulduta duten gaixoei erasotzen die, horregatik da oportunistak. Infekzio horien hilkortasuna handia izaten da, batetik gaixoa jota egoten delako, eta, bestetik, *A. baumannii* antibiotiko askorekiko erresistentea delako. Gainera, tratamendu bat ezarrita, harekiko erresistentzia garatzeko erraztasuna du bakterioak.

Arazo horren aurrean, oso garrantzitsua da bakterioak lortzen dituen erresistentzia berrien jarraipena egitea, gaixoak zein antibiotikorekin tratatu behar diren jakiteko. Azterketa hori egiteko, alde batetik, erresistentzia berriaren genea aurkitu eta nabarmendu behar da, eta, bestetik, integroiak dauden edo ez jakin behar da.

## Integroiak

Integroiak erresistentzia-geneen kateak dira, eta horietan gordetzen dira *A. baumannii*-k lortzen dituen erresistentzia



*A. baumannii*-ren bereizketa genetikoa egiteko eta zein erresistentzia dituen jakiteko metodoak garatzen ari dira Leioan.

berrietako asko. Bakterioak baditu beste bide batzuk, baina integroiak da erresistentziak bereganatu eta transmititzeko biderik eraginkorrena.

Integroiek mugikortasun handia dute, eta, *A. baumannii* bakterioaren kromosoman toki batetik bestera ibiltzen dira. Hori gutxi ez, eta bakterio batetik besterako jauzia ere egin dezakete. Horrek esan nahi du *A. baumannii* batek lortzen dituen erresistentzia guztiak besteetara erraz transmititzen direla, eta, ondorioz, espeziea etengabe berritu eta erresistenteago bilakatzen dela. Gainera, integroiak promotore bat dutenez, bakterioak beti erresistentzia horiek guztiak espresatzen edo aktibatzen ditu.

## Kontrola hobetu nahian


Ospitaleetako hainbat *A. baumannii* mota isolatuta eta aztertuta, gehienek integroiak dituztela ikusi dute. Ondorioz, datozen urteetan oso litekeena da ospitaleetako *A. baumannii* egungo antibiotiko onenekiko erresistente bihurtzea, eta erresistentzia hori integroiak zabaltzea. Izan ere, egungo antibiotikokiko erresistentzia duten anaiak agertu dira dagoeneko.

Hori horrela bada, *A. baumannii*-k sortutako infekzioen hilkortasuna asko igo daiteke, ez baita egungo infekzioari

aurre egingo dion antibiotikorik. Kontuan izan behar da ospitaleetan *A. baumannii*-z kutsatutako gaixokopurua ez dela handia, baina arazoa larria da hilkortasunagatik.

Kasu horiek detektatu eta jarraipena egiteko modua aurkitu nahian dabilta egun ikertzaileak, EHUkoak, besteak beste.

Egun badaude *A. baumannii*-ren anaiak genetikoki bereizteko teknikak, baina, orain, erresistentzia epidemikoak integroiak integratuta dauden edo ez jakin nahi da. Andui horien erresistentzien ezaugarriak garaz detektatzeko moduak aurkitu nahi dira, eta metodo horiek estandarizatu eta praktikoki egin nahi dira, kliniketan erabiltzeko moduan.

Hau da, kontrola hobetzea da egungo aukera, momentuz ez baitago antibiotikoen ordezkorik. Hori lortzeko, ezinbestekoa da infekzioa garaz detektatzea eta *A. baumannii*-ren zein andui eragin duen jakitea. Horretaz gain, infekzioa eragin duen anaiak dituen erresistentzien berri jakin behar da eta integroiak dituen edo ez. Bide horretatik, kontrol-sistemak ezarri eta *A. baumannii*-k eragindako hilkortasuna kontrolpean izatea lortu nahi da. 

### Proiektuaren izenburua

Karbapenemiko erresistentzia ematen duten entzimen identifikazioa eta integroien bidezko entzima horien hedapena ospitaleetan isolatutako *Acinetobacter baumannii* bakterioetan.

### Helburua

Karbapenemiko erresistentzia ematen duten entzimak identifikatzea, eta entzima horien hedapenaren markagailuak topatzea *Acinetobacter baumannii* bakterioetan.

### Zuzendaria

Lucia Gallego Andrés.

### Lan-taldea

EHU: A. Umaran, I. Pujana, M. J. Canduela, E. Sevillano, F. López-Otxoa

Santa Marina Ospitalea: F. Calvo

San Eloy Ospitalea: G. Martin.

### Saila

Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Saila.

### Fakultatea

Medikuntza eta Odontologia Fakultatea (Leioa).

### Finantziak

EHU.